

Xabier Letona



DANI BLANCO

Hamazazpi urte geroago

LOTHIAN ROAD kale zentrikoa da Edinburgon, han bizi izan nintzen hiru hilabetez 1996aren amaieran. Gure etxeko egongelatik hiri-buruzagiaren gaztelu zaharra tente eta arto ikusten zen; eta sarri, bandera britainiarra ere bai, guztia-
ren zaindaria. Hego hemisferio-
ko bost anglofonorekin bizi nintzen, Zelanda Berri-
ko bikote Grant eta Shara, gelakide australiar Scott eta Tom, eta Helen neska hego-
afrikarra. Eta haiekin euskaldun bat. Txisteetan bezala, erabateko normaltasunez.

Hiru hilabete ez da asko eta, gainera, ikasle giroan eta mundu osoko atzeritarrekin, ba ezin esan eskoziarrekin harreman sakon handiegirik izan nuenik. Baina apur bat bai eta, adibidez, Jabier kuadrillakoaren etxeko nagusi Margaret Eskoziako bandera eta ikurrinarekin apaintzen zituen gure afariak. Bai, ikasle *party*etan batzuetan ateratzen ziren batzuk, haiek ez zirela *brithis*ak, eskoziarrak baizik. A ze borrokaldi izan zuten behin hori zioen Nick eskoziarrak eta Sevillako gazte batek. Baina oro har, nonahi entzun eta begiratu, niretzat ere ikusi eta entzuten nuen ia guztiak zerikusi handia zuen *brithis* horrekin.

Bistan da hizkuntzari eta honen inguruan eratzen den kultura eta ikusmolde osoari begiratzen niola nik batez ere, bestelako izaera eta desberdintasunei ez niola asko erreparatu. Eskoziak eta SNPri buruz nahikotxo irakurrita joan banintzen ere, haien independentziak eta gureak zerikusi gutxi zutela pentsatzen nuen. Oso gertu sentitzen nituen, baina edozein kasutan ere, gu independentista-



goak ginela. Nekez pentsa neza-
keen orduan 17 urte geroago haiek
independentziaren atarian egon
zitezkeela eta gu...

EZ GAUDE oraindik 2014an, baina Independentziarako Liburu Zuriaren aurkezpenarekin, azken txan-
pari heldu dio SNPren Gobernu eskoziarrak. Inkestek oraingoz unionistei ematen diete abantaila, baina gorantza ei doaz independentistak. Helduko ote?

Batek daki, eta ez lortzea etsigarria izan badaiteke ere, ez da garrantzitsuen. Funtsezkoena, erreferenduma egiteko eskubidea baita, britainiar gobernuak eta eskoziarrak elkarrekin negoziatu duten prozesua. Ez baitago esku-bideetan oinarritzen ez den hauteskunde prozesurik. Hori da Eskoziako ikasgaia, lehenago Quebecokoa izan zen bezala. Herritarrek hala nahi badute, estatuek topatu behar dituztela bideak haien nahiak bideratzeko, demokraziaren ardatza ez baita legea, herritarren borondatea baizik.

Orain mundu osoak, eta bereziki Europak, ikusi ahalko du Eskoziak egin dezakeela bere erreferenduma lasaitasun osoz, adostasunez eta bakean, eta Espainian Katalu-

niak ez. Espainian, Aznar gobernuburu ohiaren ustez, Alex Salmond eta Artur Mas modukoak espetxean sartu behar direla entzungo dute. Legea ere egin zela horretarako, Ibarretxe lehendakaria espetxean sartzeko, eta PSOEek Jose Luis Rodriguez Zapateroren garaian lege hori desegin ez balu, Masek hanka bat espetxean lukeela esaten duen gisan erreferenduma deituko balu.

Ikusiko dugu zer egiten duen bere oinordeko Mariano Rajoyk abenduan Kataluniak erreferenduma egitea eskatzen diotenean. Lehen erantzuna badakigu: ez. Eta gero Kataluniako Gobernuak erreferenduma deitzen badu? Zuzenean bederen ez du deituko, hori ere iragarria du Artur Masek, eta orduan, zurrumurruen arabera beti ere, katalanek erabaki beharko dute, edo maiatzeko Europako hauteskundeak baliatuko dituzten edo irailaren 14rako deituko dituzten herritarrek.

Eta euskaldunak? Independentistok pozik Eskozia eta Kataluniakoari so eta unionistak estu Espainiak Katalunian eman dezakeen irudiarekin. Baina lasai, Tonia Etxarrik *El Correo*n (2013-11-27) dioten bezala, haien historiak eta gureak desberdinak dira. Euskal soberanismoa independentzia eta historiarena gainditzen hasten denean, unionismoak lehen lerroa dakar historia. Bere baitan goxo egoteko Trantsizioan eratutako Espainia batu eta bakar honek ez dauka ezer eskaintzeko. Hori da unionismoaren ahulgunerik handiena, eta independentismoaren abantaila esanguratsuenak. ■

